DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

# Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa
## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2019ko abenduaren 12an** / 12 de diciembre de 2019<br>**Udalbatza aretoa (Udaletxea)** / Salón de plenos (Ayuntamiento)<br>**16:00etan** / A las 18:30 horas |

### GAI ZERRENDA:
### ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Aurkezpen-txanda | 1 | Ronda de presentación |
| Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero (ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2019-10-03). | 2 | Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior (ver en los archivos adjuntos el borrador del acta de 03-10-2019). |
| Karguak berritzea: lehendakariordetza berritzear dago, eta Batzorde Iraunkorrean kide bat gehiago egoteko aukera dago. | 3 | Renovación de cargos: la vicepresidencia está pendiente de renovación, y existe la posibilidad de que haya un vocal más. |
| GGKEentzako prestakuntza posibleak:<br>• Irakurketa errazeko ikastaroa<br>• Berdintasunaren arloko laguntza | 4 | Posibles formaciones a ONGD:<br>• curso de lectura fácil<br>• Acompañamiento en materia de igualdad. |
| Hainbat informazio:<br>• 2020ko udal aurrekontua<br>• Lantaldeen egoera<br>• Dirulaguntzen deialdia<br>• Kontseiluaren 2020ko egutegia | 5 | Informaciones varias:<br>• Presupuesto municipal 2020<br>• Situación de los grupos de trabajo<br>• Convocatoria de subvenciones.<br>• Calendario del consejo en 2020 |
| Eskaerak eta galderak. | 6 | Ruegos y preguntas. |
| Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | 7 | Información sobre próximas actividades. |

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE Concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • EAJ-PNV<br>• EH-BILDU<br>• ELKARREKIN |
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • ADSIS<br>• ALBOAN<br>• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARRA-ACPP<br>• BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ<br>• CALCUTA ONDOAN<br>• ETIOPIAUTOPIA TIKAL<br>• FISC – COMPAÑIA DE MARIA<br>• INTERED<br>• LANKIDETZARAKO INGENIARITZA (IC-LI)<br>• LUMALTIK<br>• MEDICUS MUNDI<br>• MUGARIK GABE<br>• MUGEN GAINETIK<br>• MUNDUBAT<br>• PHAGMA DRÖLMA<br>• PROCLADE YANAPAY<br>• PROSALUS<br>• PROYDE-PROEGA<br>• TAU FUNDAZIOA<br>• UNICEF<br>• UNRWA EUSKADI |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | • PP<br>• BAKEA ETA ELKARTASUNA EUSKADI<br>• DERANDEIN<br>• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA<br>• SETEM<br>• SODEPAZ<br>• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA |

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación<br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzuburua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social<br>**Lankidetza Ataleko burua**<br>Jefa del negociado de Cooperación |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 26 kide, jarraian adierazten direnez gain: udaleko 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1).<br><br>• **Emakumezkoak /** Mujeres = **16**<br>• **Gizonezkoak /** Hombres = **13**<br><br>26 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre). |
| **IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Lankidetza** - Cooperación:<br>Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471<br>lankidetza@donostia.eus |

10740n XVII

## SAIOAREN BILAKAERA:
## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **1.- Aurkezpen erronda**<br><br>Aurkezpen-txanda egin da bileran daudenek elkar ezagutzeko. | **1.- Ronda de presentación**<br><br>Se realiza una ronda para conocer a las personas asistentes a la reunión. |
| **2.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.**<br><br>Aurreko akta onartu da, aldaketarik egin gabe. | **2.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.**<br><br>Se aprueba el acta anterior sin ninguna modificación. |
| **3.- Karguak berritzea: lehendakariordetza berritzear dago, eta Batzorde Iraunkorrean kide bat gehiago egoteko aukera dago.** | **3.- Renovación de cargos: la vicepresidencia está pendiente de renovación, y existe la posibilidad de que haya un vocal más.** |

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Aurreko saioan ia kargu guztiak berritu ziren. Pendiente geratu den bakarra lehendakariordearena izan zen. Adsis fundazioa prest dago: beraz, badago lehendakariordea.

En la sesión anterior se renovaron casi todos los cargos. El único pendiente es la vicepresidencia. La Fundación Adsis está dispuesta a asumir el cargo, por lo que ya hay vicepresidente.

Arautegiaren arabera, Bartzorde Iraunkorrean 4 kide egon daitezke, asko jota. Une honetan, 3 besterik ez daude (Derandein, Sodepaz eta ACPP). Beraz, norbait prest balego kide izateko, posible da.

Además, según la normativa, el número máximo de vocales en la Comisión Permanente es de 4. En este momento sólo hay 3 (Derandein, Sodepaz y ACPP). Por tanto, si alguien se animara a ser vocal, sería posible.

## 4.- GGKEentzako prestakuntza posibleak:

- **Irakurketa errazeko ikastaroa**
- **Berdintasunaren arloko laguntza**

## 4.- Posibles formaciones a ONGD:

- **Curso de lectura fácil.**
- **Acompañamiento en materia de igualdad.**

Bulegoak proposatu du irakurketa erraza/hizkera argiari buruzko ikastaro bat egitea, beste elkarteekin batera.

Bestalde, baloratzen ari da nola bideratu daitezkeen ekitatearen aldeko prozesuak GGKE txikientzat.

El Negociado propone realizar un curso de lectura fácil/lenguaje claro, que se podría realizar junto con otras asociaciones.

Por otro lado, también se está valorando cómo se pueden orientar los procesos a favor de la equidad para las pequeñas ONGD.

## 5.- Hainbat informazio:

- **Larrialdietarako laguntzak eta ekintza humanitarioa**

Hainbat arrazoi direla eta, Lankidetza Bulegoaren aurrekontuan 45.000 €-ko soberakin bat geratu da. Diru horrekin, 15.000 €-ko hiru proiektu babestu daitezke. Mezu bat bidaliko da, lantaldean adostutako epe eta beharren beri emateko. Eskariak Erregistroan aurkeztu beharko dira, abenduaren 18a baino lehen, eta baldintzak betez gero, eskaerak onartuko dira iristen

## 5.- Informaciones varias:

- **Ayudas de emergencia y acción humanitaria**

Por diversos motivos, en el presupuesto del Negociado de Cooperación se ha presupuestado un remanente de 45.000 €. Con este dinero se puede ayudar a tres proyectos de 15.000 €. Se enviará un mensaje indicando el plazo y los requisitos acordados en el grupo de trabajo. Las solicitudes deberán presentarse en el Registro antes del 18 de diciembre y se

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

diren hurrenkeran.

admitirán por riguroso orden de llegada, siempre que se cumplan los requisitos.

- **2020ko udal aurrekontua**

Gobernuak aurrekontu-proposamena aurkeztu du. Bertan, Lankidetzarako aurrekontuan, 100.000 €-ko igoera jasotzen da, aurreko urtearekin alderatuta. Gainerako talde politikoek aukera izan dute zuzenketak aurkezteko.

Podemos – Elkarrekin Donostia talde politikoaren ordezkariak azaldu du garapenerako lankidetza funtsezko gai bat dela berentzat, eta horregatik, 1,1 milioi euroko igoera proposatu dutela.

- **Presupuesto municipal 2020**

El Gobierno ha presentado la propuesta de presupuestos. Según dicha propuesta, en el presupuesto de Cooperación se recoge un incremento de 100.000 € respecto al año anterior. El resto de grupos políticos han tenido la oportunidad de presentar enmiendas.

El representante del grupo político Podemos – Elkarrekin Donostia, ha explicado que la cooperación al desarrollo es un tema clave para ellos, por lo que han propuesto un incremento de 1,1 millones de euros.

- **Lantaldeen egoera**

Data batzuk ezarrita daude, jada, lantaldeak biltzeko:

Planaren ebaluaziorako lantaldea: Abenduaren 18an, 12:00etan. Partaideak: Haurralde, Calcuta Ondoan, Paz y Solidaridad, Prosalus eta Oxfam Intermon. Orain arteko ebaluazio-proposamena bidaliko da.

Politiken koherentziari buruzko lantaldea: Data oraindik zehaztu gabe dago. Parte-hartzaileak: ESF, Mugen Gainetik, Tau, Unicef eta ACPP.

Garapen jasangarrirako helburuak: Data zehazteke, baina urtarrilean eta arratsaldez izango da. ESF, Haurralde, Prosalus, Unicef.

- **Situación de los grupos de trabajo**

Se han fijado ya algunas fechas para las reuniones de los grupos de trabajo:

Grupo de evaluación del Plan: El 18 de diciembre, a las 12:00. Participantes: Haurralde, Calcuta Ondoan, Paz y Solidaridad, Prosalus y Oxfam Intermon. Se enviará la propuesta de evaluación existente hasta la fecha.

Grupo de trabajo sobre la coherencia de las políticas: Fecha aún sin determinar. Participantes: ESF, Mugen Gainetik, Tau, Unicef y ACPP.

Objetivos de desarrollo sostenible: La fecha está por concretar, pero será en enero y por la tarde. ESF, Haurralde, Prosalus y Unicef.

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

## • Dirulaguntzen deialdia.

Urtarrilaren 14an onartuko dira oinarriak Gobernu Batzordean. Urtarrilaren 21ean argitaratuko dira GAOn, beraz, badirudi eskariak aurkezteko epea urtarrilaren 22tik otsailaren 21era izango dela. Hala ere, jakin bezain pronto, daten berri emango da.

Oinarri espezifikoak aurreko urteko berak izango dira, eta, oinarri orokorretan, gauza txiki pare bat aldatu da. Eskaerak aurkezteko sistema ere aurreko urteko bera izango da (on line plataforma).

## • Convocatoria de subvenciones.

Las bases se aprobarán en la Junta de Gobierno el 14an de enero. Se publicarán el 21 de enero en el BOG, por lo que se prevé que el plazo de presentación de solicitudes será del 22 de enero al 21 de febrero. No obstante, se informará de las fechas tan pronto como se sepan.

Las bases específicas serán las mismas que el año anterior y, en las generales, se ha modificado un par de pequeñas cosas. El sistema de presentación de solicitudes será el mismo que el año anterior (plataforma on line).

## • Kontseiluaren 2020ko egutegia

Batzorde Iraunkorrean erabakitakoaren arabera, hauek dira hurrengo urteko datak:

Osoko bilkurak: martxoaren 18a, ekainaren 18a, irailaren 17a eta abenduaren 17a; 16:00.

Batzorde Iraunkorraren saioak: martxoaren 5a, ekainaren 4a, irailaren 3a eta abenduaren 3a; 10:00.

## • Calendario del consejo en 2020

De acuerdo con lo acordado en la Comisión Permanente, las fechas del año 2020 son:

Plenos: 18 de marzo, 18a de junio, 17a de septiembre y 17a de diciembre; 16:00.

Sesiones de la Comisión Permanente: 5 de marzo, 4 de junio, 3 de septiembre y 3 de diciembre; 10:00.

## Donostiar delegazioaren bidaia Palestinara.

Sodepazek Palestinara joateko bidaia bat antolatu du. Urtarrilaren 8tik 16ra, Lankidetzako bi teknikari, kazetari bat, eta Udaleko talde politiko guztietako ordezkariekin joango dira, PPrekin izan ezik. Martxoko kontseiluan esperientziaren berri emango dute.

## • Viaje de la delegación donostiarra a Palestina.

Sodepaz organiza un viaje a Palestina. Del 8 al 16 de enero, irán allí con dos técnicos/as de Cooperación, un/a periodista y representantes de todos los grupos políticos del Ayuntamiento, excepto el PP. En el Consejo de marzo se dará a conocer la experiencia.

10740n XVII

| | |
|---|---|
| Beste aztergairik ez dela, 19:05 amaitu da bilera. | Sin más temas que tratar, finaliza el Consejo a las 19:05. |

10740n XVII